

Obesitatea eta eskola-jazarpena haurtzaroan eta nerabezaroan: berrikuspen sistematikoa

Andere Jimeno Martitegi¹, Olaia Biurrun Ascunce¹, Uxue Garcia Zaballa¹,
Eva Pereda-Pereda^{1,2}

¹Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Fakultatea

²Biodonostia, Osasun Mentala eta Arreta Psikiatrikoaren Taldea

Gaur egungo gizartean obesitatea duten haurrak oso estigmatizatuak izaten dira, eta pisu normala duten haur eta nerabeen aldean, *bullyingaren* biktima izateko aukera gehiago dituzte. Lan honen helburua da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeengan obesitateak eskola-jazarpenean jokatzen duen papera aztertzen duen literatura zientifikoa berrikustea, baita horrek eragingo lituzkeen ondorioak jakitera ematea ere. Horretarako, bilaketak PubMed, Web of Science, Scopus eta PsycINFO datu-baseetan gauzatu ziren. Mundu-mailan argitaratutako 26 artikulua landu ziren guztira. Emaitzen arabera, obesitatea izatea eskola-jazarpena sufritzeko arrisku-faktorea da, mutila izatearekin batera. Gainera, mutilek jazarpenera fisiko gehiago pairatzen zituzten nesken aldean, eta neskek, aldi berean, jazarpenera erlazonala sufritu ohi zuten. Horrek dituen ondorio ohikoenen artean, depresioa, antsietatea eta isolamendu soziala aurkitu ziren. Berrikuspen honek agerian uzten du *bullyinga* sufritzen duten haur eta nerabeenganako kezka. Honenbestez, psikologoek adingabeei errespetuan eta tolerantzian oinarritutako harremanak irakasterako berebiziko erantzukizuna dute.

GAKO-HITZAK: Berrikuspen sistematikoa · Haur-obesitatea · Eskola-jazarpena/*bullying*.

Obesity and bullying in childhood and adolescence: a systematic review

Nowadays, children with obesity are highly stigmatized and more likely to be bullied than peers who have normal weight. This study aimed to review the scientific literature that studies the role of obesity in school bullying in children and adolescents of primary and secondary education and the consequences thereof. For this purpose, PubMed, Web of Science, Scopus, and PsycINFO databases were searched for relevant articles. Twenty-six articles published worldwide were included. Results suggested that obesity is a risk factor for bullying, along with being male. Moreover, boys suffered more physical bullying than girls, while girls suffered relational harassment. The most common consequences of weight-based bullying were depression, anxiety, and social isolation. This review highlights the concern for children and adolescents who suffer from bullying. Thus, psychologists have a special responsibility in teaching relationships based on respect and tolerance to minors.

KEY WORDS: Systematic review · Pediatric obesity · Weight-based bullying.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.122.2022.7>

Jasotze-data: 2021-07-21

Onartze-data: 2021-10-28

1. Sarrera

Obesitatea gaixotasun sistemiko, kroniko eta errepikakorra da. Ahoratutakoaren eta gastu energetikoaren arteko desorekaren emaitza da. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) 2013an proposatutako irizpideekin bat eginez, haur-obesitatea osasun publikoaren XXI. mendeko arazo larrienetarikoa da (OME, 2020). Azken urteetan, munduko herrialde guztietan haur-obesitatearen inguruko kezka asko hazi da. Espainian, haur-obesitatearen prebalentzia % 23,3koa da (ALADINO ikerketa, 2020).

Obesitatearen sailkapen kuantitatibo onartuena gorputz-masaren indizean (GMI) oinarritzen da, zeina pisua (kg) zati altuera metro karratutan (m²) lortzen den. Gaur egun, ez dago haur-obesitatearen eta gainpisuaren ebaki-puntu zehatzaren inguruko akordiorik (Merchant *et al.*, 2007). Izan ere, haurrak hazkuntza- eta garapen-prozesu batean murgilduta daude. Horrek ezberdintasun nabariak sortzen ditu banakoen gantz-metaketa tasetan, adin, sexu, arraza eta pubertaroaren hasierako momentuaren araberakoak izaten direnak. Hori dela eta, aipatutako GMIta haur bakoitzaren adinaren eta sexuaren testuinguru zehatzean interpretatu eta ulertu behar da (Simoni *et al.*, 2020). GMIta sailkatzeko erreferentzia erabilienak International Obesity Task Force-renak (IOTF) (Cole eta Lobstein, 2012) eta OMErenak (de Onis *et al.*, 2007) dira.

Etiopatogenia oraindik oso ezaguna ez den arren, genetika, nerbio-sistema, sistema endokrino eta metabolikoa, zein bizitza-estiloa kontuan hartzen dira. Herentzia genetikoak rol garrantzitsua jokutzen du; izan ere, obesitatea duten gurasoak dituzten gizabanakoek obesitatea nerabezaroan pairatzeko 10 aldiz aukera gehiago dituzte obesitaterik gabeko gurasoak dituzten banakoen aldean. Bestalde, obesitatea garatzeko faktore aurreikusle anitzen artean, adina, sexua, dieta, elikatze-ohiturak, faktore psikologikoak, kulturalak eta ingurumenezkoak aurkitzen dira (Mahan *et al.*, 2013).

Aipatutako kultura- eta gizarte-faktoreen aldetik, Gobernu Kanpoko Nazioarteko Erakunde den Mugarik Gabeko Bullyingak (Bullying Sin Fronteras) argitaratutako txostenean Mexiko, Estatu Batuak eta Txina dira jazarpenaren fenomenoak gehien darabiltenak. Harrigarria da hiru herrialde horien arteko ezberdintasunek nola eragiten duten berdinen arteko oldarkortasuna aurrera eramateko orduan. Mexikon adibidez, jazarpenaren zergatiak handiputza izatearekin du erlazio zuzena; izan ere, herrialdean dagoen oldarkortasun-joerak agerian uzten du jotzen duenak estatus sozial altuagoa izango duela erasoak jasotzen dituen haurren aldean. Estatu Batuetan, *bullyingak* unibertsitate-testuinguruarekin du harremana, hau da, hasiberriei egiten zaizkien isekak nerabeen suizidioaren kausa dira. Bukatzeko, Txinaren aldaketa ekonomikoak munduko erdi-mailako klase handiena sortu du, beraz, klase sozial baxukoa izatea eskola-jazarpenera sufritzeko zergatia da (ONG Internacional Bullying Sin Fronteras, 2021). Laburbilduz, herrialde bakoitzaren arabera eskola-jazarpenera pairatzeko arrisku-faktore kulturalak ezberdinak izan daitezkeela ondoriozta daiteke.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dauden biktima eta erasotzaileen prebalentzia aztertzeko aurrera eramandako ikerketek biktimen % 39,2ko eta erasotzaileen % 38,4ko prebalentzia adierazi dute (Garaigordobil, 2013; Garaigordobil, 2015a, 2015b). Jazarpen moten artean nabarmenenak ahozko jazarpena (% 34,4), sozialak (% 10,6), fisikoak (% 9,5) eta psikologikoak (% 9,1) izan dira. Larrain-ek eta Garaigordobil-ek (2020) argitaratutako ikerketak agerian utzi du emakumeen ehuneko altuagoa aurkitu dela biktimaren rolean, baina erasotzaileen ehunekoa nesken eta mutilen artean antzekoa da. Horrez gain, neskek jarrera oldarkor gehiago jasotzen dituzte eta mutilek jokabide horiek gehiagotan eramaten dituzte aurrera.

Haur-obesitatea hainbat erikortasunekin erlazionatzen da, epe motzean, ertainean eta luzean osasun fisiko eta mentalen arriskuak dakartzatenak. Erikortasun horietako askok helduaroan gaixotasunen arrisku-faktore bihurtzeko aukera dute (Kumar eta Kelly, 2017). Adibidez, haurtzaroko obesitatea nerabegaroko (Albañil *et al.*, 2011) eta helduaroko obesitatearen (Wilfley *et al.*, 2019) iragarle indartsua da, baita helduaroan heriotza goiztiarreko arrisku-faktorea izanik ere (Wilfley *et al.*, 2019). Erikortasun fisikoei dagokienez, II. motako diabetes mellitusa, hipertentsio arteriala, dislipidemia, gaixotasun kardiobaskularrak eta sindrome metabolikoa daude (Gil, 2010).

Erikortasun fisiko horiez gain, haur eta nerabeen obesitatearekin lotutako erikortasun psikosozial negatibo anitz daude, adingabeen arlo emozionalean, intelektualean eta sozialean eragiten dutenak. Horien artean, gorputz-irudiaren alterazioak, elikadura-jokabidearen nahasmenduak, antsietate-sintomatologia eta depresio-sintomatologia daude. Obesitatea duten adingabeek beren berdinen partez estigmatizazioa pairatzeko eta interakzio sozial negatiboak izateko aukera handiagoa dute (adibidez, isekak eta jazarpena) (van Geel *et al.*, 2014), eta horiek isolamendua bezalako jokabide barneratzaileak areagotu ditzakete (Morales *et al.*, 2019). Pereda-Pereda *et al.*-ek (2019) egindako ikerketak egiaztatu zuen obesitatea zuten haurrei esleitzen zitzaizkien ezaugarrien artean, ergela, itsusia eta zikina zeudela. Ez hori bakarrik, obesitatea zuten haurrak ekintza sozialean parte hartzeko maiztasun gutxirekin aukeratzen ziren. Hori guztia ikusita, askotan obesitatea duten adingabeak irragarri uzten direla adieraz daiteke. Ondorioz, gizabanako horiek, besteak beste, lotsa, pena eta errua sentitzen dituzte (OME, 2020).

Gaur egun, mundu osoko hezkuntza- eta osasun-profesionalen artean interes gehien sortzen duten gaietako bat da eskola-jazarpena edo *bullyingaren* fenomenoak (Levandoski eta Cardoso, 2010, 2013). Eskola-jazarpena edo *bullyinga* ageriko motibaziorik ez duten nahita egindako jokabide agresibo eta errepikakorren multzoa bezala definitzen da. Jokabide horiek ikasle batek edo gehiagok hasten dituzte beste pertsona baten edo batzuen aurka, eta azken horiengan, mina, antsietatea eta sufrimendu larria eragiten dute (Olweus, 1994). Méndez-en eta Cerezo-ren (2010) genero-ikuspegitik, *bullyingean* gizonek emakumeek baino inplikazio handiagoa dute. Orokorrean, gizonek larderia forma fisiko gehiago esperimintatzen dituzte, eta emakumeak larderia horren biktimak izaten dira (Baughman *et al.*, 2012; Hoyos *et al.*, 2005). Autore batzuen arabera, aurreko baieztapenaren zergatiak testuinguru

soziokultural batekin du zerikusia. Testuinguru horretan, gogoeta egin da gizonen emakumeekin abusuzko harremanak izaten ikasi dutelako (maskulinitasun hegemonikoaren eraikuntza gisa kontzeptualizatu dena), eta maskulinitasunari berari dagozkion ezaugarriak ez dituzten emakumeekin eta gizonekin ere erlazionatzen direlako (Berger eta Rodkin, 2009; Narvaz eta Koller, 2007).

Adinari dagokionez, denborarekin larderia-jokabideak murriztu egiten dira. *Bullyngean* parte hartzen duten ikasle inplikatuena adina 11 eta 18 urte bitartekoa izaten da. Horrek agerian uzten du fenomeno hau eskola-adin guztietara orokortzen dela (Garaigordobil eta Oñederra, 2008; Méndez eta Cerezo, 2010).

William Voors autoreak 2005ean *bullyngia* hiru motatan sailkatu zuen. Alde batetik, jazarpen fisikoa; ostikadak, bultzadak, kolpeak, kerruak, ile-tiratzeak, hozkadak, etab. sartzen dira. Bestetik, ahozko jazarpenak; mehatxuak, isekak eta irainak hartzen ditu bere gain. Horiek orokorrean, jatorri etnikoagatik, itxura fisikoaren hutsune edo gabezia batengatik edo hitz egiteko modu arraro batengatik izaten dira gehienbat. Azken mota jazarpen erlazionala da, gazteen nahiaezko bazterketa krudelari dagokio, zeina itxuragatik, ideologiagatik, jokatzeko edo pentsatzeko moduagatik izan daitekeen.

Indarkeria mota horiek gertatzeko probabilitatea zenbait arrisku-faktorek areagotu dezakete. Indarkeriaren arrisku-faktoreak gizabanako bat jokabide eta jarrera bortitzak aurrera eramateko edo pairatzeko zaurgarritasun-egoera batean jartzen duten aldagaiak dira. Mendozak (2013) honela sailkatu zituen:

- *Erasotzailearen arrisku-faktoreak*: erasotzailearen arrisku-faktore indibidualen artean, enpatiarik eza, autoestimua baxua, oldarkortasuna, egozentrismoa, eskola-porrota, substantzien kontsumoa eta nahasmendu psikopatologikoak egon daitezke. Eskola-faktoreetan, balio-transmisio falta, jarrera bortitzak zigortzen ez dituzten hezkuntza-arauak, estereotipoak sexisten transmisioa eta aniztasun kulturalari arretarik eza aurki daitezke.
- *Biktimaren arrisku-faktoreak*: arrisku-faktore indibidualen artean, autoestimua baxua, beste haurrekiko gaitasun sozial gutxi izatea, gehiegizko urduritasuna, gehiengoarekiko ezberdintasun fisiko edota kultural nabariak (obesitatea, arraza), aniztasun funtzionala izatea edota nahasmendu psikologikoak izatea aurki daitezke. Azkenik, hezkuntzako arrisku-faktoreen artean, isiltasunaren legea (egoera edo ekintza bortitz baten aurrean ezer ez egitea edo esatea, erasotzaileak biktima mehatxatu ondoren), talde-ekintzetan parte-hartze urria, gainerako adinkideekin harreman gutxi izatea, ikasle eta irakasleen arteko komunikazio eskasa eta eskola barruko autoritate-irudi baten gabezia egon daitezke.

Arrisku-faktoreak ez ezik, jazarpenaren literaturan gizabanakoen profila ezberdinak ere aztertu izan dira: erasotzailea, biktima eta behatzailea. Erasotzaileek oldarkortasunarekin, erreaktibotasunarekin, izaera bortitzarekin, hiperaktibitatearekin, jokabide neurotikoekin eta sentsibilitate gutxirekin erantzuten dute.

Horrez gain, adimen-koziente baxuagoa izateko joera dute, haien zirikatzea errazagoa izaten da, autoirudi baxua izaten dute eta gaitasun akademiko eskasa zein jarrera txarragoa izaten dute. Beren burua menderatzaile ideal bezala hautematen dute. Izan ere, estatus sozial eta ospea duten pentsamenduagatik besteen gainetik daudela uste dute (Gómez *et al.*, 2007; Salmivalli, 2010). Gizabanako horiek biktimak aukeratzen dituzte, baita beren jokabide bortitzak aurrera eramateko lekua eta ordua ere. Biktimak aukeratzeko orduan, oso hautakorrak izaten dira; izan ere, otzanak, beren buruekiko ez-ziurak, fisikoki ahulak edota taldeak baztertuak diren pertsonak aukeratzen dituzte. Horrek baimendu egiten die erasotzaileei boterea taldearen gainerako kideei erakustea, norbaitek aurre egingo dien beldurra alderatuz (Salmivalli, 2010).

Biktimaren profilaz, ordea, orokorrean beldur handia, antsietatea eta bakardadea zein isolamendua sentitzen duela esan daiteke. Askotan, porrotera, absentismora eta eskola uztera eramaten dituzten sentimenduak izaten dituzte (Hoyos *et al.*, 2005). Eraso fisikoak ostikaden, ukabilkaden edota atximurren bidez adierazten dira. Ahozko moduan, biktimari isekak, mehatxuak, xantaiak, difamazioak, irainak eta estortsioak egiten zaizkio. Batzuetan, jazarpena era zeharkako batean gertatzen da, isolamendua eta bakardade soziala eraginez (Méndez eta Cerezo, 2010). Bi biktima prototipo existitzen dira; alde batetik, aktiboa edo probokatzaila dago, zeinak berezko ezaugarriak dituen. Antsietatearen eta erantzun bortitz baten arteko konbinaketa da eta haren bortizkeriak erasotzailea errugabetu egiten du. Bestetik, biktima pasiboa ohikoena izaten da. Gizabanako ez-ziurak izaten dira, oharkabe pasatzen dira, eta gainera, erasoak isiltasunean sufritzen dituzte. Horien jarrera segurtasun faltaren eta mespretxuaren isla da erasotzailearentzat, ez baitiete eraso eta irainei erantzuten (Barría *et al.*, 2004).

Hirugarren profil bat behatzailearena da. Behatzailearen rolean Salmivalli-k (1999) laguntzaileak, indartzaileak, kanpoan daudenak eta babesleak ezberdintzen ditu, horien ekintzak noren alde bideratzen diren. Hala, honako sailkapen hau egiten da: behatzaile aktiboa, pasiboa eta proaktiboa. Lehenengoak erasotzailearen gertuko lagunak izaten dira eta biktima zuzenean ez kaltetu arren, zeharka jarduten dute erasotzailearekiko berrelikadura positiboa sustatuz. Adibidez, keinu indartzaile edo barreen bitartez biktimarekiko jazarpena bultzatzen dute. Behatzaile pasiboak kanpoko pertsonak izaten dira, zeintzuek ikusitako *bullying*arekiko distantzia mantentzen duten. Ez ikusiarena egiten dute, hau da, ez dute ezer egiten jazarpenaren aurrean. Halere, haien jokabidea gertatutakoaren isilpeko onarpen gisa uler daiteke. Bukatzeko, behatzaile proaktiboa dugu, biktima defendatzen duena da, jazarpenaren aurrean biktimaren alde jartzen dena; beste adinkideengan, baita irakasleengan ere, laguntza bilatzen du.

Obesitatea eta eskola-jazarpenaren inguruan jasotakoa kontuan izanda, prebentzio goiztiar baten beharraren inguruko kezka gero eta gehiago aldarrikatzen ari da, baita tratamendu eraginkor baten inguruko interesa sustatu ere (Puhl eta Lessard, 2020). Izan ere, mundu-mailan haur eta nerabeen obesitatearen prebalentziaren hazkuntza oso azkar ematen ari da (OME, 2020).

Aipatutako arazoaren garrantzia azpimarratzeko Puhl *et al.*-ek (2016) egindako ikerketa batek aurkitu zuen obesitatea *bullyinga* pairatzeko arrazoirik ohikoena zela, arrazaren, orientazio sexualaren eta erlijioaren aurretik. Ikerketaren nazioarteko parte-hartzaileen % 70ek pisuan oinarritutako eskola-jazarpena maiz edo oso maiz gertatzen den arazo bezala identifikatu zuten eta % 69k larritzat edo oso larritzat hartu zuten.

Gaur egungo bizitza-estiloa teknologia aurreratuetan oinarritzen da eta horrek ekintza fisikoaren eta aisialdi-mailen murrizketan lagundu egiten du. Azkenengo fenomeno hori hertsiki lotuta dago elikagai hiperkalorikoen kontsumoaren hazkuntzarekin, baita obesitatearekin ere. Aldi berean, gero eta edertasun-estandar zurrunagoak daude, zeintzuek argaltasunaren idealtasunaren ideia bultzatzen duten. Gizarteak gorputz idealaren inguruan egiten dituen irudikapen sozialak gaztetasun-, edertasun- eta osasun-ezaugarriekin oso lotuta daude. Hedabideek irudiarekiko obsesio hori bultzatzen dute eta, ondorioz, gorputz inperfektuzat hartzen diren gizabanakoengan gutxiegitasun-sentimenduak sortzen dira, baita besteengandik diskriminazioa jaso ere (Puhl eta Lessard, 2020).

Griffiths *et al.*-ek (2006) aurrera eramandako ikerketan gehiegizko pisua zuten nerabeek larderia eta biktimizazioa maizago sufritzen zutela aurkitu zuten. Ekintza negatibo gehiago jasotzen zituzten gainerako eskolakideen aldetik eta, normalean, min egiteko helburua izaten zuten. Obesitatea izateagatik *bullyinga* sufritzen duten biktimak beren itxura fisikoarekin kontentagaitz senti daitezke eta desdoitze psikologiko zein autoestimua baxu bati lotuta daude. Horrek tratu txarrak jasotzeko sentikorrago egiten ditu (Lopes de Sousa, 2008).


Haur-obsesitatea arazo indibiduala izatetik mundu-mailako gizarte-arazoa izatera igaro da, tabakoaren ondoren hilkortasun-tasarik handiena duen gaixotasuna izateraino. Gehiegizko pisua duten haurren kopurua abiadura kezagarri batean hazten ari da. Gaur egun, eskola-adinean dauden 155 milioi haurrek gehiegizko pisua dutela estimatzen da (OME, 2020). Osasun-arazo honi gizarte-arazoak gehitu behar zaizkio; izan ere, ikerketen arabera, eskola-adinean obesitatea izatea *bullyinga* pairatzeko arrisku-faktorea izan daiteke (Haqq *et al.*, 2021; Pont *et al.*, 2017). Hala, lan honen helburua da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeen obesitateak eskola-jazarpenean jokatzen duen papera aztertzen duen literatura zientifikoa berrikustea, baita horrek eragingo litzuzkeen ondorioak jakitera ematea ere.

2. Metodologia

Berrikuspen sistematiko honek PRISMA gidak adosten duen metodoarekin egiten du bat (Moher *et al.*, 2009). Artikuluen bilaketa Pubmed, Web Of Science, Scopus eta PsycINFO datu-baseetan gauzatu zen, zeintzuk 2021. urteko otsaila eta maiatza bitartean aurrera eraman ziren. Horrez gain, bi artikulua eskuz lortu ziren. Bilaketetan erabilitako gako-hitzak «*childhood obesity*», «*pediatric obesity*» eta «*bullying*» izan ziren, ondorioz, «*pediatric obesity OR childhood obesity AND bullying*» izan zen bukaeran egindako bilaketa nagusia.

Ondoren, lortutako artikuluko guztien izenburua eta laburpena irakurri ziren, hurren aipatzen diren barneratze-irizpideei jarraikiz: (1) 2010 eta 2021 urteen bitartean argitaratutako berrikuspen sistematikoak, proba klinikoak edo metaanaliak ez ziren artikulukoak izan behar zuten, (2) ingelesez edo gaztelaniaz idatzita, (3) parte-hartzaileek obesitatea zuten 18 urte baino gutxiagokoak izan behar zuten eta (4) eskola-bullyingaren biktimak izan behar zuten.

Berrikuspen sistematiko honentzat baliagarriak ziren artikulukoak hautatu eta gero, banan-banan irakurri ziren eta helburua betetzen ez zutenak zein behin sakon irakurrita aurretik aipatutako irizpideak betetzen ez zituztenak alderatu ziren. Bukaeran, prozesu guztia fluxu-diagrama batean islatu zen (kontsultatu 1. irudia).



1. irudia. Fluxu-diagrama.

Ikertzaileek hautatutako ikerketen datu-bilketa egiteko formulario bat sortu zuten. Bi ikertzailek (AJM, EPP) datuak jaso zituzten. Iritzi ezberdinak ikertzaile guztien artean ebatzi ziren. Datu hauek jaso ziren: autoreak, argitaratze-data, lurraldea, lagin-tamaina, batez besteko adina, jazarpenaren inguruko ezaugarriak (mota, erasoenak neskak edo mutilak ziren eta jazarpenaren ondorio aipagarrienak). Informazio hau 1. taulan laburtzen da.

Bi ikertzailek (UGZ, OBA) ikerketen kalitatea independenteki ebaluatu zuten. Horretarako, berrikuspen sistematiko honen helburuari erantzuteko Newcastle-Ottawako Eskalan oinarritutako eskala erabili zuten (Sokol *et al.*, 2017; Wells *et al.*, 2020). Hirugarren ikertzaile batekin (EPP) desadostasunak ebatzi zituzten. Tresna horren bidez, ikerketa bakoitzaren kalitatea 15 itemetan oinarrituta ebalua daiteke. Itemak lau taldetan sailkatzen dira: i) parte-hartzaileen hautaketa eta emaitzak orokortzeko aukera; ii) nahaste-faktore posibleak; iii) esposizioaren neurketa; eta iv) emaitzen neurketa. Artikulu bakoitza 15 galdera dikotomikoei (bai/ez) erantzunez ebaluatu zuten, baiezko erantzun bakoitzaren puntu bana esleituz eta gehienez 15 puntu lortuz. Artikulua «kalitate handikotzat» jo zen gehienezko puntuazioaren % 60 edo gehiago lortu zuenean, kasu honetan 9 puntu edo gehiago. % 60 da kalitate-ebaluazioetarako erabili ohi den ebakitze-puntua (Luppino *et al.*, 2010).

3. Emaitzak

3.1. Dokumentuen ezaugarriak

Berrikuspen sistematiko honek 26 artikulu ezberdinetan banatutako 367.602 parte-hartzaile hartzen ditu bere gain. Horien artean, generoa nahiko orekatuta zegoen, % 50,24 neskak eta % 49,73 mutilak ziren. Lurraldeari dagokionez, mundu-mailan egindako ikerketak bildu ziren, hala nola Estatu Batuetan (n = 12), Herbehereetako Erresuman (n = 2), Italian (n = 2), Alemanian (n = 1), Australian (n = 1), Hego Korean (n = 1), Iranen (n = 1), Suedian (n = 1), Turkian (n = 1), Txekiar Errepublikan (n = 1) eta Txinan (n = 1). Horiez gain, nazioarteko bi ikerketa ere bazeuden. Hautatutako artikuluen ezaugarriak 1. taulan kontsulta daitezke.

3.2. Ikerketen kalitatea

Barne-irizpideen bidez kalitate-maila egokia ziurtatu zen eta berrikuspen honen ikerketen kalitatea handia izan zen (2. taula kontsultatu). Hala, lau ikerketak 15 puntutik 12 baino gehiago lortu zituzten (Gibson *et al.*, 2017; Giletta *et al.*, 2010; van Vuuren *et al.*, 2019; Zahedi *et al.*, 2019). Batek 8 puntu lortu zituen (Şahin eta Kırılı, 2020), eta beste guztiek 9 eta 11 puntu bitartean lortu zituzten (Almenara eta Ježek, 2015; Bacchini *et al.*, 2015, 2017; Farhat *et al.*, 2010; Hammar *et al.*, 2020; Juvonen *et al.*, 2017; Kim *et al.*, 2016; Klinck *et al.*, 2020; Koyanagi *et al.*, 2020; Lee *et al.*, 2018; Lee *et al.*, 2020; Lin *et al.*, 2018; Liu *et al.*, 2016; Lumeng *et al.*, 2010; Madowitz *et al.*, 2012; Morales *et al.*, 2019; Nabors *et al.*, 2019; Odar *et al.*, 2016; Rupp eta McCoy, 2019; Sutin *et al.*, 2018; Waasdorp *et al.*, 2018). Hortaz, hautatutako ikerketa guztien kalitatea altua izan zela ondoriozta daiteke.

3.3. Obesitatea eta eskola-jazarpena

Aurretik aipatutako artikuluek sortutako literaturaren berrikuspen honi dagokion helburuari jarraikiz, autore gehienek baieztatu zuten gehiegizko pisua duten haur eta nerabeek eskola-jazarpena edo *bullyinga* pairatzeko aukera gehiago dituztela. Izan ere, gehienek ondorioztatu zuten GMIaren puntuazio altuek jazarpenaren biktima izatearekin harreman esanguratsuki zuzena zeukatela (adb., Kim *et al.*, 2016; Klinck *et al.*, 2020; Koyanagi *et al.*, 2020; Lin *et al.*, 2018; Lumeng *et al.*, 2010; Şahin eta Kırılı, 2020). Gai honetan gehiago sakonduz, Almenara-ren eta Ježek-en (2015) ikerketaren arabera, gainpisurik ez zuten eta gainpisua zuten nerabeen arteko konparaketan, gainpisua zutenek aukera gehiago zituzten gorputzaren inguruko jazarpena pairatzeko, bai itxuragatik baita pisuagatik ere. Baieztapen horri indarra ematen dio Estatu Batuetan 2018an egindako ikerketa batek, zeinak esaten zuen gehiegizko pisua zuten haur eta nerabeek esanguratsuki jazarpen gehiago jasotzen zituztela. Estatistikoki gehiegizko pisua pairatzen zutenek eskola-jazarpena sufritzeko % 60ko aukera gehiago zituzten, pisu normala zuten haur eta nerabeen aldean (Waasdorp *et al.*, 2018). Hala eta guztiz ere, Odar *et al.*-en (2016) azterketa batek azaldu zuen, behin familia, auzoa eta haurren faktoreak kontrolatuta, gehiegizko pisua zuten haurrek ez zutela zertan jazarpena sufritzeko aukera gehiago izan.

3.4. Obesitatea, generoa eta eskola-jazarpen mota

Generoaren ikuspuntutik adostasuna dago. Autore gehienek diote *bullyingaren* biktima izateko mutilek neskek baino aukera gehiago zituztela (Almenara eta Ježek, 2015; Bacchini *et al.*, 2015; Kim *et al.*, 2016; Zahedi *et al.*, 2019). Halere, bestelako emaitzak ere badaude. Liu *et al.*-ek (2016) egindako ikerketaren arabera, obesitatea pairatzen zuten ikasleen artean biktimaren papera gehien neskengan behatzen zen, obesitatea pairatzen ez zuten ikasleen aldean. Horren harira, 41 lurraldetan aurrera eramandako nazioarteko ikerketa baten emaitzek bat egin zuten neskek mutilek baino jazarpen gehiago sufritzen zituztelako baieztapenarekin (Koyanagi *et al.*, 2020). Mutilengan, bestalde, obesitatea pairatzen zutenak *bullying* erasotzaileak izan ohi ziren beste ikasleen aldean. Orokorrean, obesitatea zuten mutilek *bullying* erasotzaile zein biktima-erasotzaile papera hartu ohi zuten.

Esan bezala, obesitate-maila larria zuten haurrek beste taldeen aldean itxuragatiko isekak eta burlak maizago sufritzen zituzten (Almenara eta Ježek, 2015). Gainera, biktimizazio fisiko gehiago sufritzen zituzten, ikara eragiten zitzaaien eta talde-ekintzetatik baztertuak ziren. Obesitate moderatua zuten parte-hartzaileek aldi berean, isekak, eraso fisikoak eta bazterketa pairatzen zituzten (Bacchini *et al.*, 2015; Morales *et al.*, 2019). Hala Koyanagi *et al.*-en (2020), nola Lee *et al.*-en (2020) ikerketek generoaren araberako jazarpen mota aztertu zuten. Emaitzek agerian utzi zuten neskek ahozko *bullyinga* eta *bullying* erlazionala mutilek baino maizago pairatzen zutela. Azken horiek *bullying* fisikoa sarriago jasotzen zuten nesken aldean. Hori guztia Morales *et al.*-ek (2019) baieztatu zuten; haien emaitzetan ageria zen neska izatea *bullying* erlazionala pairatzeko arrisku-faktorea zela eta mutilek aukera gehiago zituztela fisikoki jazarriak izateko. 2018an burututako ikerketa

baten emaitzek adierazi zuten emakumeek, jazarpen fisikoa izan ezik, *bullying* mota guztiak pairatzeko aukera gehiago zituztela (Waasdorp *et al.*, 2018). Ikertzaile horien arabera, obesitatea zuten nerabeek jazarpen erlazionala, ahozkoa eta ziberjazarpena pairatzeko % 66ko proportzioan aukera gehiago zituzten (Waasdorp *et al.*, 2018).

Lee *et al.*-ek (2020) baieztatu zuten adinak aurrera egiten zuen heinean neskengan biktimizazio sexuala eta mutilengan *ziberbullyinga* hazi egiten zela. Adinarekin jarraituz, haurrak gero eta nagusiagoak zirenean, ahozko jazarpenaren eta jazarpen erlazionalaren biktimak gutxiagotan zirela aurkitu zen (Kim *et al.*, 2016).

3.5. Obesitatearen eta eskola-jazarpenaren ondorioak

Arazo psikologiko eta emozionalak. Ikerketen arabera, gehiegizko pisua zuten adingabeek gehiegizko pisurik ez zuten nerabeen aldean erasotzaile zein biktima izateko aukera gehiago zituzten, baita jokabide-arazoak, depresioa eta beste zenbait nahasmendu pairatzeko aukera gehiago ere (Rupp eta McCoy, 2019). Odar *et al.*-ek (2016) baieztatu zuten depresioa pairatzeak noizbait eskola-jazarpena sufritu izanarekin erlazioa zeukala. Ildo beretik, 2012an aurrera eramandako ikerketa baten emaitzek agerian utzi zuten berdinkideengandik isekak jaso zituzten haurrek depresio-maila altuagoak zituztela (Madowitz *et al.*, 2012). Are gehiago, normalean obesitatea zuten gazte biktimizatuek normalean obesitatea ez zuten gazteek baino barne-sintoma (depresioa, urduri edo antsietate handiz sentitzea, zerbait txarra gertatuko den kezka izatea) esanguratsuki larriagoak pairatzen zituzten (Waasdorp *et al.*, 2018).

Jazarpenak obesitatea duten haur eta nerabeengan antsietatea eragin lezake; izan ere, nazioarteko ikerketa batean, obesitatea izatea estutasun fisiko zein psikologikoarekin positiboki lotuta dagoela aurkitu zen (Lee *et al.*, 2018). Ez hori bakarrik, *bullyinga* jasan ohi zutela aitortzen zuten nerabeek arazo psikosozial gehiago pairatzen zituztela aurkitu zen (van Vuuren *et al.*, 2019). Şahin-ek eta Kırılı-k (2020) aurrera eramandako ikerketak adierazi zuten antsietate- eta depresio-eskaletan lortutako emaitzak estatistikoki esanguratsuagoak zirela obesitatea zuten haur eta nerabeen artean.

Generoari dagokionez, neskengan autoestimupuntuazioak baxuagoak eta depresio-puntuazioak altuagoak ziren mutilek lortutakoen aldean (Gibson *et al.*, 2017; Giletta *et al.*, 2010). Are gehiago, neskek arazo emozional gehiago izaten zituzten, baita sintoma somatikoak agertzeko aukera gehiago ere (Hammar *et al.*, 2020; Juvonen *et al.*, 2017). Gainera, Zahedi *et al.*-en (2019) aburuz, neskengan depresio eta antsietatearen prebalentzia esanguratsuki altuagoa zen. Hala eta guztiz ere, Gibson *et al.*-en (2017) ikerketan mutilek ere itxura fisikoari dagokion autoestimuaaren esparruan puntuazio baxua lortu zutela azpimarratu zen.

Isolamendu soziala. Morales *et al.*-ek (2019) burututako ikerketa batek baieztatu zuten obesitatea zuten haurrak obesitaterik ez zuten umeen aldean maiz sozialki isolatuak izaten zirela. Are gehiago, lagunak egiteko zailtasun gehiago zituzten

eta ez zuten kideek bezain harreman arrakastatsurik mantentzen (Nabors *et al.*, 2019; Rupp eta McCoy, 2019). Bacchini *et al.*-en (2017) ikerketan GMIan lortutako puntuazioak gaitasun sozialekin korrelazio negatiboa zuen. Horrek lotura zuzena izan lezake Juvonen *et al.*-ek (2017) beren ikerketan lortutako emaitzekin. Horren arabera, pisuagatik diskriminatua izateak antsietate soziala zuen ondorio, bai neskengan baita mutilengan ere. Genero-ikuspegitik, neskek mutilek baino isolamendu nabariagoa pairatzen zuten (Morales *et al.*, 2019).

Elikatze-jokabide ez-osasuntsuak. Berdinkideengandik *bullyinga* jasan zuten umeez elikadura-nahasmenduak izateko 5 aldiz aukera gehiago zituztela aurkitu zen (Madowitz *et al.*, 2012). 2017. urtean burututako ikerketa batek adierazi zuen obesitatea zuten neskek elikadura-nahasmenduak pairatzeko aukera gehiago zituztela (Gibson *et al.*, 2017). Horren kausa izan zitezkeen obesitatedun nerabeek izan ohi zuten gorputz-asegabetasuna, desegokizat hautemandako gorputz-irudia eta itxura-frustrazioa (Gibson *et al.*, 2017; Lin *et al.*, 2018).

Substantzien abusua eta jokabide arriskutsuak. Erretzeak, edateak eta kalamua kontsumitzeak gehiegizko pisua zuten neskekin harreman zuzena zeukan. Pisu normala zuten nesken aldean, obesitatea zuten neskek edateko, erretzeko eta kalamua kontsumitzeko aukera gehiago zituzten (Farhat *et al.*, 2010; Klinck *et al.*, 2020). Gainpisua zuten neskek, ordea, edateko aukera gehiago zituzten. Gehiegizko pisua zuten mutilen artean substantzien erabileran emaitza esanguratsurik aurkitu ez zen arren, obesitaterik gabeko berdinkideek baino arrisku gehiago zituzten armak eskolara eramateko orduan (Farhat *et al.*, 2010). Azken horrek bat egiten du Hammar *et al.*-ek (2020) aurrera eramandako ikerketaren emaitzekin, zeinen arabera, obesitatedun mutilengan jokabide-arazoak hazi egiten ziren.

Suizidioa. van Vuuren *et al.*-en (2019) emaitzek adierazi zuten gainpisua zuten nerabeek, gainpisurik ez zutenen aldean, pentsamendu suizida gehiago aitortzen zituztela. Aldi berean, *bullyingaren* biktima izan ziren nerabeek pentsamendu suizida gehiago zituzten. Hala, eskola-jazarpenaren biktima izatea bitartekari esanguratsua zen gainpisua eta pentsamendu suizidak izatearen artean. Zahedi *et al.*-en (2019) aburuz, pisu normala zuten pertsonen bizi-asetasun esanguratsuki altuagoa zuten obesitatea zuten pertsonen aldean. Hori dela eta, pisuagatik erasoak jaso zituzten umeez gehiagotan pentsatu zuten beren burua zauritzearen inguruan, beren burua zauritu zuten, pentsamendu suizidak izan zituzten, plan bat sortu zuten edota iraganean behin behintzat saiatu egin ziren (Sutin *et al.*, 2018).

1. taula. Hautatutako artikuluen ezaugarriak, obesitatea duten pertsonen jazarpen motak eta jazarpenaren ondorioak.

Autorea (urtea)	Lurraldea	N (% neskek)	Adina	Jazarpen mota ^a	Erasoenak ^b	Ondorio aipagarrienak
Almenara <i>et al.</i> (2015)	Txekiar Errepublikak	570 (% 47,9)	13	B	M > N	N- itxuragatiko jazarpena M- pisuagatiko jazarpena
Bacchini <i>et al.</i> (2017)	Italia	815 (% 48)	6-14	B		Gaitasun sozial eta fisikoak (-)
Bacchini <i>et al.</i> (2015)	Italia	947 (% 48,26)	6-14	B	M > N	Itxuragatiko isekak, eraso fisikoak eta bazterketak
Farhat <i>et al.</i> (2010)	Estatu Batuak	7.825 (% 50)	11-17	Mutilak B Neskak BE	M > N	M- jokabide arriskutsuak (armak) N- substantzien abusua (alkohola, tabakoa, kalamua)
Gibson <i>et al.</i> (2017)	Alemania	212 (% 51)	8-13	B		Elikadura-nahasmenduak (+), sintoma depresiboak (+), autoestimua (-)
Gilletta <i>et al.</i> (2010)	Herbehereetako Erresuma	2.051 (% 49)	10-16	B	M > N	Autoestimua baxua, sintoma depresiboak (N > M)
Hammar <i>et al.</i> (2020)	Suedia	573 (% 47,2)	12	B		Jokabide arriskutsuak (M > N) Arazo emozionalak (N > M)
Juvonen <i>et al.</i> (2016)	Estatu Batuak	5.991 (% 52)	11-13	B		Antsietate soziala (+) N- sintoma somatikoak (+)
Kim <i>et al.</i> (2016)	Hego Korea	1.640 (% 50,9)	12-15	Mutilak B, E, eta BE Neskak B	M > N	
Klinck <i>et al.</i> (2020)	Estatu Batuak	1.344 (% 52)	11-14	B		Sintoma depresiboak (+) Substantzien abusua (+)
Koyanagi <i>et al.</i> (2020)	41 lurralde; nazioarteko ikerketa	114.240 (% 48,8)	12-15	B	N > M M- jazarpen fisikoa N- ahozko jazarpena	
Lee <i>et al.</i> (2018)	42 lurralde, nazioarteko ikerketa	10.160 (% 49,6)	10-17	B		Antsietate fisiko eta psikologikoa (+)

^aJazarpen mota: (B) biktima, (E) erasotzailea, (BE) biktima eta erasotzailea. ^bErasoenak: (N) neskak, (M) mutilak.

1. taula. Hautatutako artikuluen ezaugarriak, obesitatea duten pertsonen jazarpen motak eta jazarpenaren ondorioak (jarraipena).

Autorea (urtea)	Lurraldea	N (% neskak)	Adina	Jazarpen mota ^a	Eraoenak ^b	Ondorio alpagarrienak
Lee <i>et al.</i> (2020)	Estatu Batuak	9.124 (% 48,6)	10-16		M: jazarpen fisikoa N: ahozko jazarpena	
Lin <i>et al.</i> (2018)	Estatu Batuak	8.303 (% 49)	12-16	B		Pertzibitutako gorputz-irudia (-), itxurarekiko frustrazioa (-)
Liu <i>et al.</i> (2016)	Txina	10.587 (% 52)	7-18	Neskak B Mutilak E, BE	N > M	
Lumeng <i>et al.</i> (2010)	Estatu Batuak	821 (% 50)	8-11	B		
Madowitz <i>et al.</i> (2012)	Estatu Batuak	79 (% 58,8)	8-12			Depresioa (+), elikadura-nahasmenak (+)
Morales <i>et al.</i> (2019)	Estatu Batuak	18.130 (% 48,4)	7-8	B	M: jazarpen fisikoa N: jazarpen erlazionala	Isolamendu soziala (N > M)
Nabors <i>et al.</i> (2019)	Estatu Batuak	26.094 (% 49,2)	10-17	B		Harreman arrakastatsuenak (-), lagunak egiteko zailtasunak (+)
Odar <i>et al.</i> (2016)	Estatu Batuak	41.361 (% 48)	10-17			Depresioa (+)
Rupp <i>et al.</i> (2019)	Estatu Batuak	31.770 (% 44,8)	10-17	B, E, BE		Jokabide-arazoak (+), depresioa (+), lagunak egiteko zailtasunak (+)
Şahin <i>et al.</i> (2020)	Turkia	115 (% 64,45)	8-16	B		Depresioa (+), Antsietate fisiko eta psikologikoa (+)
Sutin <i>et al.</i> (2018)	Australia	2.948 (% 48)	14-15			Beren burua zauritu (+), pentsamendu suizidak (+), suizidioa (+)

^aJazarpen mota: (B) biktima, (E) erasotzailea, (BE) biktima eta erasotzailea. ^bEraoenak: (N) neskak, (M) mutilak.

1. taula. Hautatutako artikuluen ezaugarriak, obesitatea duten pertsonen jazarpen motak eta jazarpenaren ondorioak (jarraipena).

Autorea (urtea)	Lurraldea	N (% neskek)	Adina	Jazarpen mota ^a	Erasoenak ^b	Ondorio aipagarrienak
van Vuuren <i>et al.</i> (2019)	Herbehereetako Erre-suma	13.740 (% 53,4)	13-14	B		Arazo psikosozialak (+), suizidioa (+)
Waasdorp <i>et al.</i> (2018)	Estatu Batuak	43.282 (% 47,8)	12-18	B	M- jazarpen fisikoa	Sintoma bareratzailak (+)
Zahedi <i>et al.</i> (2019)	Iran	14.880 (% 49,2)	6-18	B	M > N	Bizitza-asetasuna (-) N- depresioa (+), antzietatea (+)

^aJazarpen mota: (B) biktima, (E) erasotzailea, (BE) biktima eta erasotzailea. ^bErasoenak: (N) neskek, (M) mutilak.

2. taula. Ikerketen kalitatea.

	Almenara et al. (2015)	Bacchini et al. (2017)	Bacchini et al. (2015)	Farhat et al. (2010)	Gibson et al. (2017)	Gilletta et al. (2010)	Hammar et al. (2020)
Parte-hartzaileen hautaketa eta emaitzak orokortzeko aukera							
1. Argi deskribatu dira parte-hartzaileen ezaugarriak?	1	1	1	1	1	1	1
2. Lagina biztanleriaren adierazgarria izan zen?	1	1	1	1	1	1	0
3. Lagina bildu zen lurraldera orokortu daiteke?	0	1	1	1	1	1	0
Nahaste-faktore posibleak							
4. Ikerketaren hasieran frogatu al zen eskola-jazarpenarekin erlazionatuako erkontasunik ez zegoela? Edo kontrolatuak izan ziren?	1	1	1	1	1	1	1
5. Faktore nagusiak (sexua, adina) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
6. Beste faktore nagusi batzuk (jazarpen mota, erasoenen sexua) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
Espozizioaren neurketa							
7. Ebaluatu al zen gorputz-masaren indizea?	1	1	1	1	1	1	1
8. Ebaluatu al ziren eskola-jazarpenarekin erlazionatuako ondorioak?	0	0	0	1	1	1	1
Emaitzen neurketa							
9. Ikertzaileek gorputz-masaren indizea neurtu al zuten?	1	1	1	1	1	1	1
10. Neurketa-denbora ezberdinak baleude, parte-hartzaileen kopurua zehaztu al zen?	0	0	0	0	1	0	1
11. Jarraipena egonez gero parte hartu dutenen galeren kopurua % 30 baino gutxiago izan zen?	0	0	0	0	1	0	0
12. Galdutako parte-hartzaileen ezaugarriak eskola-jazarpenarekin erlazionatuta zeuden edo uzteko arrazoi nagusia ez zen horregatik izan?	0	0	0	0	0	0	0
13. Balio galduek kontabilizatu al ziren?	1	1	1	1	1	1	1
14. Tamainaren efektuak aipatu al ziren?	1	1	0	0	1	0	1
15. Lagina 200etik gorako zenbakia izan al zen?	1	1	1	1	1	1	1
Guztira	10	11	10	11	14	12	11

2. taula. Ikerketen kalitatea (jarraipena).

	Juvonen et al. (2016)	Kim et al. (2016)	Klinck et al. (2020)	Koyanagi et al. (2020)	Lee B et al. (2018)	Lee JG et al. (2020)	Lin et al. (2018)
Parte-hartzailleen hautaketa eta emaitzak orokortzeko aukera							
1. Argi deskribatu dira parte-hartzailleen ezaugarriak?	1	1	1	1	1	1	1
2. Lagina biztanleriaren adierazgarria izan zen?	1	1	1	1	1	1	1
3. Lagina bildu zen lurraldera orokortu daiteke?	1	1	1	1	1	1	1
Nahaste-faktore posibleak							
4. Ikerketaren hasieran frogatu al zen eskola-jazarpenarekin erlazionatuako enkortasunik ez zegoela? Edo kontrolatuak izan ziren?	1	1	1	1	1	1	1
5. Faktore nagusiak (sexua, adina) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
6. Beste faktore nagusi batzuk (jazarpen mota, erasoenen sexua) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
Esposizioaren neurketa							
7. Ebaluatu al zen gorputz-masaren indizea?	1	1	1	1	1	1	1
8. Ebaluatu al ziren eskola-jazarpenarekin erlazionatuako ondorioak?	1	1	1	0	1	0	1
Emaitzen neurketa							
9. Ikertzaileek gorputz-masaren indizea neurtu al zuten?	1	1	1				
10. Neurketa-denbora ezberdinak baleude, parte-hartzailleen kopurua zehaztu al zen?	0	0	0	0	0	0	0
11. Jarraipena egonez gero parte hartu dutenen galeren kopurua % 30 baino gutxiago izan zen?	0	0	0	0	0	0	0
12. Galdutako parte-hartzailleen ezaugarriak eskola-jazarpenarekin erlazionatuta zeuden edo uzteko arrazoi nagusia ez zen horregatik izan?	0	0	0	0	0	0	0
13. Balio galduak kontabilizatu al ziren?	1	1	1	1	1	1	1
14. Tamainaren efektuak aipatu al ziren?	0	0	0	0	0	0	0
15. Lagina 200etik gorako zenbakia izan al zen?	1	1	1	1	1	1	1
Guztira	11	11	11	9	10	9	10

2. taula. Ikerketen kalitatea (jarraipena).

	Liu et al. (2016)	Lumeng et al. (2010)	Madowitz et al. (2012)	Morales et al. (2019)	Nabors et al. (2019)	Odar stough et al. (2016)	Rupp et al. (2019)
Parte-hartzaileen hautaketa eta emaitzak orokortzeko aukera							
1. Argi deskribatu dira parte-hartzaileen ezaugarriak?	1	1	1	1	1	1	1
2. Lagina biztanleriaren adierazgarria izan zen?	1	1	1	1	1	1	1
3. Lagina bildu zen lurraldera orokortu daiteke?	1	1	1	1	1	1	1
Nahaste-faktore posibleak							
4. Ikerketaren hasieran frogatu al zen eskola-jazarpenarekin erlazionatutako erikotasunik ez zegoela? Edo kontrolatuak izan ziren?	1	1	1	1	1	1	1
5. Faktore nagusiak (sexua, adina) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiak aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
6. Beste faktore nagusi batzuk (jazarpen mota, erasoenen sexua) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiak aurkeztu zen?	1	1	1	1	1	1	1
Espozizioaren neurketa							
7. Ebaluatu al zen gorputz-masaren indizea?	1	1	1	1	1	1	1
8. Ebaluatu al ziren eskola-jazarpenarekin erlazionatutako ondorioak?	0	0	1	0	0	0	1
Emaitzen neurketa							
9. Ikertzaileek gorputz-masaren indizea neurtu al zuten?	1	1	1	1	0	0	0
10. Neurketa-denbora ezberdinak baleude, parte-hartzaileen kopurua zehaztu al zen?	0	0	0	0	0	0	0
11. Jarraipena egonez gero parte hartu dutenen galeren kopurua % 30 baino gutxiago izan zen?	0	0	0	0	0	0	0
12. Galdutako parte-hartzaileen ezaugarriak eskola-jazarpenarekin erlazionatuta zeuden edo uzteko arrazoi nagusia ez zen horregatik izan?	0	0	0	0	0	0	0
13. Balio gaiduak kontabilizatu al ziren?	1	0	0	0	0	0	0
14. Tamainaren efektuak aipatu al ziren?	0	1	1	0	1	1	1
15. Lagina 200etik gorako zenbakia izan al zen?	1	1	0	1	1	1	1
Guztira	10	10	10	9	9	9	9

2. taula. Ikerketen kalitatea (jarraipena).

	Şahin <i>et al.</i> (2020)	Sutin <i>et al.</i> (2018)	Van vuuren <i>et al.</i> (2019)	Waasdorp <i>et al.</i> (2018)	Zahedi <i>et al.</i> (2019)
Parte-hartzaileen hautaketa eta emaitzak orokortzeko aukera					
1. Argi deskribatu dira parte-hartzaileen ezaugarriak?	1	1	1	1	1
2. Lagina biztanleriaren adierazgarria izan zen?	1	1	1	1	1
3. Lagina bildu zen lurraldera orokortu daiteke?	0	1	1	1	1
Nahaste-faktore posibleak					
4. Ikerketaren hasieran frogatu al zen eskola-jazarpenarekin erlazionatutako erikotasunik ez zegoela? Edo kontrolatuak izan ziren?	1	1	1	1	1
5. Faktore nagusiak (sexua, adina) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1
6. Beste faktore nagusi batzuk (jazarpen mota, erasoenen sexua) kontrolatuak izan ziren edota horiek kontrolatzeko estrategiarik aurkeztu zen?	1	1	1	1	1
Esposizioaren neurketa					
7. Ebaluatu al zen gorputz-masaren indizea?	1	1	1	1	1
8. Ebaluatu al ziren eskola-jazarpenarekin erlazionatutako ondorioak?	1	1	1	1	1
Emaitzen neurketa					
9. Ikertzaileek gorputz-masaren indizea neurtu al zuten?	0	1	1	0	1
10. Neurketa-denbora ezberdinak baleude, parte-hartzaileen kopurua zehaztu al zen?	0	0	1	0	1
11. Jarraipena egonez gero parte hartu dutenen galeren kopurua % 30 baino guxkiago izan zen?	0	0	1	0	1
12. Galdutako parte-hartzaileen ezaugarriak eskola-jazarpenarekin erlazionatuta zeuden edo uzteko arrazoi nagusia ez zen horregatik izan?	0	0	0	0	0
13. Balio galdiak kontabilizatu al ziren?	0	0	0	0	1
14. Tamainaren efektuak aipatu al ziren?	1	1	1	1	1
15. Lagina 200etik gorako zenbakia izan al zen?	0	1	1	1	1
Guztira	8	11	13	10	14

4. Ondorioak

Berrikuspen sistematiko honen helburu nagusia izan da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako haur eta nerabeengan obesitateak eskola-jazarpenean jokatzen duen papera aztertzen duen literatura zientifikoa berrikustea. Lortutako ondorioek aditzera eman zuten obesitatea zuten haur eta nerabeek *bullyinga* pairatzeko aukera gehiago zituztela, hura pairatzen ez zuten haur eta nerabeen aldean. Ez hori bakarrik, bildutako emaitzek adostu zuten mutila izatea eskola-jazarpena sufritzeko arrisku-faktore argia zela. Horren ildotik, mutilek neskek baino jazarpen gehiago pairatzen zituzten arren, *bullyingaren* ondorio gehiago aurkitu ziren nesken gainean baino. Neskek autoestimu baxuagoa eta depresio- zein antsietate-maila altuagoak zituzten, baita isolatuak izateko aukera gehiago ere.

Generoaren esparruan lortutako emaitzek zalantzagarritasun-zantzu bat dute, hura azaldu dezaketen zenbait hipotesi planteatzea baitaitezke. Alde batetik, emakumeek laguntza eskatzeko aukera gutxiago azaltzen dituzte, horien kezkak maiz baliogabetzen direlako. Ez hori bakarrik, zenbait lurraldetan sexismoaren kontuak indar handia dauka oraindik (ONG Internacional Bullying Sin Fronteras, 2021). Kasu horietan, emakumeek haurtzarotik biktimaren papera onartzen dute; beraz, gaizki tratatuak izan daitezkeela bereganatzen dute, laguntza eskatzearen aukera baztertuz. Hori dela eta, emaitzen aniztasuna aurki daiteke esparru honetan; izan ere, datuek jazarpena jasaten dutela dioten pertsonak barne hartzen dituzte, eta, kasu batzuetan, jazarpena jasan bai baina esan ez dutenak alde batera uzten dira.

Bestalde, ez da harrizkoa emakumeengan arazo psikologiko gehiago behatzea, gizartean indarkeria mota ezberdinak maizago pairatzen baitituzte. Gizarteak, orokorrean, gehiegizko pisua duten emakumeak gizonak baino maizago zigortzen ditu, hori ere haurtzaroan eta nerabezaroan azter daitekeelarik. Ezin uka daiteke obesitatea duten pertsonak estigmatizatuak daudela eta baztertuak izaten direla (O’Keeffe *et al.*, 2020). Hori guztia dela eta, lortutako emaitza guztiek aditzera ematen dute jokabide-arazo gehiago daudela pisuarekin arazoak dituzten haurren eta nerabeengan esparru sozialean, familiarrean eta eskola-esparruetan.

Itxurarekiko, irudiarekiko eta kontsumo material zein ez-materialarekiko gehiegizko kezkak mundu garaikideko identitatea eraikitzen du eta, horrek, idealtzat hartutako gorputz-irudiak determinatu eta zehazten ditu. Edertasun-kanonen existentzia sozialki elkarbanatua da, batez ere gorputz-irudia integratzen hasi berri diren nerabeen artean. Integrazio hori denboran zehar garatzen da eta eragin sozial argiak ditu, hau da, bakoitzaren gorputzaren onarpena berdinkideek gailendutako irizpideek baldintzatuko dute. Aipatutako irizpideok,aldi berean, eredu sozialek determinatzen dituztenak dira eta gorputz argal, lerdin eta perfektua proposatzen diete nerabeei, batez ere, emakumeei (Oliveira eta Parra, 2014).

Gorputz-asegabatasuna autoestimu baxuarekin, depresioarekin eta elikadura-nahasmenduekin harremanetan ipini izan da, batez ere horiek sufritzeko arrisku-faktorea diren emakumeen kasuan. Populazio horrentzat, itxura autokontzeptuan zentratuta dago, baita besteen ebaluazioetan ere. Kulturalki genero femeninoaren

edertasun idealak lotura du argaltasunarekin zein pertsona gehienentzat eskuraezina eta osasungaitza den irudiarekin (Baile *et al.*, 2002).

Horrek guztiak bat egiten du berrikuspen sistematiko honetan lortutako emaitze-kin. Neskengan mutilengan baino maizago behatzen dira pisuagatik jazarpenak eragindako ondorio esanguratsuenak. Esan bezala, gizarteak ezarritako pisu ideala ez izateagatik, neskek autoestimua baxuagoa dute, arazo emozional gehiago dituzte eta antsietate- zein depresio-nahasmenduetan puntuazio altuagoak lortzen dituzte. Ez hori bakarrik, isolamendu soziala sufritzeko aukera gehiago dituzte. Ondorioz, gizarteak emakumeengan sortzen dituen edertasun-patroi idealek genero- ezberdintasunak azaldu egiten dituztela esan daiteke. Horrez gain, salatzeaz gainera, aldarrikatu egiten dutela sexismorik, estigmatik eta jazarpenik gabeko gizarte baten beharra.

Aurrekoaren ildotik, jazarpenik gabeko eskolak lortzeko helburuarekin, gero eta gehiago dira ezartzen ari diren obesitatearen esku-hartze zein *bullying*aren aurkako programak (Koplan *et al.*, 2005). Horien artean, Tornero-Quiñones *et al.*-en (2015) ikerketa aurkitzen da, zeinak ekintza fisikoa zein ohitura osasuntsuak sustatzearen alde egiten duen. Ondorioek adierazi dute nerabeen gorputz-irudian eta obesitatearekiko jarreretan hobekuntza esanguratsua bilatu behar dela. Eskoletan testuinguru emozionalki osasuntsu eta ziurrak eraikitzeko, nahitaezkoa da eskolek dituzte zerbitzuak erabilitea eta irakasle zein eskola-psikologoak zeregin horretan inplikatzeko (Tornero-Quiñones *et al.*, 2015).

Esan bezala, psikologoek berebiziko garrantzia daukate biktimen bizitza hobetzeko orduan (Haqq *et al.*, 2021). Pisuan oinarritutako eskola-jazarpenaren prebalentzia handia kontuan hartuta, lehenengo urratsa arazo hori ezagutzera ematea izango litzateke, kontzientziak pizteko eta gehiegizko pisua duten haur eta nerabeak babesteko (Bauer *et al.*, 2004). Sharp *et al.*-en (2000) arabera, *bullying*a pairatzen duten gizabanakoen babes-faktorarik garrantzitsuen egoeraren zein erantzunen kontrolaren pertzepzioa da; hau da, gizabanakoek jazarpenari era pasibo batean erantzun ordez, era aktibo eta asertibo batean erantzutea. Hori dela eta, oso garrantzitsua da aukeradun testuinguru bat sortzea, non biktima den ikasleak aurre-egite estrategia erabilgarriak gara ditzan. Haur zein nerabeei lagunak egiteko, sentimenduak adierazi eta jasotzeko, eskubideak defendatzeko, iritzi zein ikuspegi ezberdinak tolerantzeko eta pertsonen arteko arazoak konpontzeko gaitasunak irakasten zaizkien heinean, gaitasunak bermatzen ari zaizkie biktimei mehatxuei, manipulazioei eta limurtzei aurre egiteko. Ez hori bakarrik, balizko erasotzaileei erlazionatzeko beste modu batzuk zein errespetuan eta elkarlanean oinarritutako jokabideak irakasten ari zaizkie (Orte, 2006).

Laburbilduz, honek guztiak argi eta garbi erakusten du obesitatea duten haur eta nerabeek *bullying*a oso sarri jasotzen dutela eta mundu-mailako kezka bat dela. Ez hori bakarrik, arazo horrek sortutako ondorio esanguratsuek era oso negatibo batean eragiten dute pertsona horien bizitzetan, eta batzuetan heriotzara eramaten dituzte. Hori dela eta, tolerantzian, errespetuan, hezkidetzan eta askatasunean oinarritutako espazioak eraiki behar dira gizabanako guztiak babestu ahal izateko.

Etorkizuneko esku-hartzeetarako norabide interesgarria litzateke eskola-komunitatea sortzen duten hiru talde nagusietara zuzentzea, hau da, ikasle, irakasle zein gurasoen inplikazioa bilatzea. Berrikuspen honetan lortutako ondorioetan oinarrituta, zabaldu beharreko ideia nagusiak hauek lirateke: batetik, azaltzea zer eragin duen gizarteak inposatutako edertasun-kanonak haur zein nerabeen gorputz-asegabatasunean; bestetik, argitzea zer harreman duten gorputz-irudiak eta generoak jazarpenarekin, eta, azkenik, zabaltzea zer ondorio dituen jazarpenak, jasotzen duenarentzat. Horren harira, bilatu beharreko beste helburu nagusia jazarpenaren prebentzioa etxean zein eskolan lantzea litzateke; horretarako zabaldutako informazio honen guztiaren hartzaileak gurasoek zein irakasleek izan beharko lukete, haur eta nerabeekin batera.

Berrikuspen sistematikoa egitean zenbait muga hartu behar dira kontuan. Kalitatezko berrikuspena lortzearen eta hautaketa-prozesuan sesgoak murriztearen, berrikuspen narratibo batekin alderatuta, ikerketa gutxiago hautatu izana. Ezin daiteke ahaztu berrikuspen sistematiko bat ikerketa behagarria, atzera begirakoa eta sesgoei zaugarria dela. Gainera, teknika eztabaidagarria da metodo estatistikoek ezin dituztelako ikerketen arteko desadostasunak zuzendu edo hitzartu, eta are gutxiago, ikerketa kontraesankorrak neurri global bakar batean konbinatu. Metodologian aurkitu diren mugei dagokienez, zenbait artikuluko baliagarri deuseztatu behar izan dira horien hizkuntzagatik, portugesa esaterako. Are gehiago, baliagarriak izan zitezkeen metaanalisiak barneratze-irizpideetatik kanporatu dira, nahiz eta horien zenbait kontzeptu lan honen marko kontzeptualean sartu. Ikerketaren kalitatearen aldetik, ez da erraza izan artikuluen ezaugarriak indibidualki baloratzea eta gero amankomunean jartzea.

Etorkizuneko ikerketak egiteko, interesgarria izango litzateke aztertzea nola eragiten duen gizarteak haurren jazarpenaren zergatietan, baita, aurretik aipatu den bezala, jazarpenaren prebentziorako esku-hartzeak proposatzea, Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikasle zein irakasleei zuzenduak. Berrikuspen sistematikoan zehar komunikabideetan bidaltzen diren mezu estigmatizatzaile eta sexistak salatu dira, baita horiek haurrengan dituzten eraginak aipatu ere; horiek irakasleei zabaltzeak eta eskola-jazarpenarekin duten lotura azaltzeak berebiziko garrantzia dauka; izan ere, gizarteak zabaltzen dituen mezu horiek haur eta nerabeengan norainoko inpaktua izan dezaketen irakasleak kontziente egitea lehen urratsa da arazoaren garrantziaz ohartzeko. Ondorioz, haurren jokabideak zer puntutaraino baldintzatuta dauden jakitea oso eraginkorra izan daiteke *bullying*aren aurkako programak diseinatzeko eta jokabide agresibo horien zergatiei aurre egiteko. Horrek umeen heziketaren hutsuneak azpimarratuko lituzke.

5. Eskerrak eta oharrak

Lan hau Psikologiako Gradu Amaierako Lan batetik eratorria da.

6. Bibliografía

- Agencia Española de Seguridad Alimentaria y Nutrición (2020): *Estudio ALADINO 2019: Estudio sobre alimentación, actividad física, desarrollo infantil y obesidad en España 2019*, Ministerio de Consumo, Madrid.
- Albañil, María Rosa; Rogero, E.; Sánchez, M.; Olivas, A.; Rabanal, A. eta Sanz, M. (2011): «Riesgo de mantener obesidad desde la infancia hasta el final de la adolescencia», *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 13(50), 199-211.
- Almenara, Carlos A. eta Ježek, Stanislav (2015): «The source and impact of appearance teasing: An examination by sex and weight status among early adolescents from the Czech Republic», *Journal of School Health*, 85(3), 163-170.
<https://doi.org/10.1111/josh.12236>
- Bacchini, Dario; Licenziati, M Rosaria; Affuso, Gaetana; Garrasi, Alessandra; Corciulo, Nicola; Driul, Daniela; Tanas, Rita; Fiumani, Perla M; Di Pietro, Elena; Pesce, Sabino; Crinò, Antonino; Maltoni, Giulio; Iughetti, Lorenzo; Sartorio, Alessandro; Deiana, Manuela; Lombardi, Francesca eta Valerio, Giuliana (2017): «The interplay among BMI z-score, peer victimization, and self-concept in outpatient children and adolescents with overweight or obesity», *Childhood Obesity*, 13(3), 242-249.
<https://doi.org/10.1089/chi.2016.0139>
- Bacchini, Dario; Licenziati, M Rosaria; Garrasi, Alessandra; Corciulo, Nicola; Driul, Daniela; Tanas, Rita; Fiumani, Perla M; Di Pietro, Elena; Pesce, Sabino; Crinò, Antonino; Maltoni, Giulio; Iughetti, Lorenzo; Sartorio, Alessandro; Deiana, Manuela; Lombardi, Francesca eta Valerio, Giuliana (2015): «Bullying and victimization in overweight and obese outpatient children and adolescents: an Italian multicentric study», *Plos One*, 10(11), e0142715. <https://doi.org/10.1371/journal.pone.0142715>
- Baile, José Ignacio; Guillén, Francisco eta Garrido, Emilio (2002): «Insatisfacción corporal en adolescentes medida con el Body Shape Questionnaire (BSQ): efecto del anonimato, el sexo y la edad», *International Journal of Clinical and Health Psychology*, 2(3), 439-450.
- Barría, Pilar; Matus, Carol; Mercado, Daniela eta Mora, Carolina (2004): «Bullying y rendimiento escolar», Facultad de Educación, Universidad Católica de Temuco, Txile.
- Bauer, Katherine W.; Yang, Y. Wendy eta Austin, S. Bryn (2004): «“How can we stay healthy when you’re throwing all of this in front of us?” Findings from focus groups and interviews in middle schools on environmental influences on nutrition and physical activity», *Health Education & Behavior*, 31(1), 34-46.
<https://doi.org/10.1177/1090198103255372>
- Baughman, Holly M.; Dearing, Sylvia; Giammarco, Erica eta Vernon, Philip A. (2012): «Relationships between bullying behaviours and the Dark Triad: a study with adults», *Personality and Individual Differences*, 52(5), 571-575.
<https://doi.org/10.1016/j.paid.2011.11.020>
- Berger, Christian eta Rodkin, Philip C. (2009): «Male and female victims of male bullies: Social status differences by gender and informant source», *Sex Roles*, 61(1), 72-84.
- Cole, Tim J. eta Lobstein, Tim (2012): «Extended international (IOTF) body mass index cut-offs for thinness, overweight and obesity», *Pediatric Obesity*, 7(4), 284-294.
<https://doi.org/10.1111/j.2047-6310.2012.00064.x>
- de Onis, Mercedes; Onyango, Adelheid W; Borghi, Elaine; Siyam, Amani; Nishidaa, Chizuru eta Siekmann, Jonathan (2007): «Development of a WHO growth reference for school-aged children and adolescents», *Bulletin of the World Health Organization*, 85, 660-667. <https://doi.org/10.2471/BLT.07.043497>

- Farhat, Tilda; Iannotti, Ronald J. eta Simons-Morton, Bruce G. (2010): «Overweight, obesity, youth, and health-risk behaviors», *American Journal of Preventive Medicine*, 38(3), 258-267. <https://doi.org/10.1016/j.amepre.2009.10.038>
- Garaigordobil, Maite eta Oñederra, José Antonio (2008): «Bullying: incidence of peer violence in the schools of the Autonomous Community of the Basque Country», *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 8(1), 51-62.
- Garaigordobil, Maite (2013): *Cyberbullying. Screening de acoso entre iguales*, TEA ediciones, Madril.
- , (2015a): «Cyberbullying in adolescents and youth in the Basque Country: Prevalence of cybervictims, cyberaggressors, and cyberobservers», *Journal of Youth Studies*, 18(5), 569-582. <https://doi.org/10.1080/13676261.2014.99234>
- , (2015b): «Ciberbullying en adolescentes y jóvenes del País Vasco: cambios con la edad», *Anales de Psicología*, 31(3), 1.069-1.076. <https://doi.org/10.6018/analesps.31.3.179151>
- Gibson, Lisa Y.; Allen, Karina L.; Davis, Elizabeth; Blair, Eve; Zubrick, Stephen R. eta Byrne, Susan M. (2017): «The psychosocial burden of childhood overweight and obesity: evidence for persisting difficulties in boys and girls», *European Journal of Pediatrics*, 176(7), 925-933. <https://doi.org/10.1007/s00431-017-2931-y>
- Gil, Ángel (2010): *Tratado de Nutrición*, Editorial Panamericana, Madril.
- Gilletta, Mateo; Scholte, Ron H.J.; Engels, Rutger C.M.E. eta Larsen, Junilla K. (2010): «Body mass index and victimization during adolescence: the mediation role of depressive symptoms and self-esteem», *Journal of Psychosomatic Research*, 69(6), 541-547. <https://doi.org/10.1016/j.jpsychores.2010.06.006>
- Gómez, Antonio; Gala, F.; Lupiani, M.; Bernalte, A.; Miret, M.; Lupiani, S. eta Barreto, M. (2007): «El “bullying” y otras formas de violencia adolescente», *Cuadernos de Medicina Forense*, 13(48-49), 165-177.
- Griffiths, Lucy J.; Wolke, Dieter; Page, Angie S.; Horwood, Jeremy P. eta The ALSPAC Study Team (2006): «Obesity and bullying: different effects for boys and girls», *Archives of Disease in Childhood*, 91(2), 121-125. <https://doi.org/10.1136/adc.2005.072314>
- Hammar, Ewa; Bladh, Marie eta Agnafors, Sara (2020): «Mental health and experience of being bullied in 12-year-old children with overweight and obesity», *Acta Paediatrica*, 109(7), 1450-1457. <https://doi.org/10.1111/apa.15131>
- Haqq, Andrea M.; Kebbe, Maryam; Tan, Qiming; Manco, Melania eta Salas, Ximena R. (2021): «Complexity and stigma of pediatric obesity», *Childhood Obesity*, 17(4), 229-240. <https://doi.org/10.1089/chi.2021.0003>
- Hoyos, Olga; Aparicio, José eta Córdoba, Paola (2005): «Caracterización del maltrato entre iguales en una muestra de colegios de Barranquilla (Colombia)», *Psicología desde el Caribe*, 16, 1-28.
- Juvonen, Jaana; Lessard, Leah M; Schacter, Hannah L. eta Suchilt, Luisana (2017): «Emotional implications of weight stigma across middle school: the role of weight-based peer discrimination», *Journal of Clinical Child & Adolescent Psychology*, 46(1), 150-158. <https://doi.org/10.1080/15374416.2016.1188703>
- Kim, Seung-Gon; Yun, Ilhong eta Kim, Jae-Hong (2016): «Associations between body weight and bullying among South Korean adolescents», *The Journal of Early Adolescence*, 36(4), 551-574. <https://doi.org/10.1177/0272431615577204>
- Klinck, Melanie; Vannucci, Anna; Fagle, Tessa eta Ohannessian, Christine M. (2020): «Appearance-related teasing and substance use during early adolescence», *Psychology of Addictive Behaviors*, 34(4), 541-548. <https://doi.org/10.1037/adb0000563>

- Koplan, Jeffrey P.; Liverman, Catharyn T. eta Kraak, Vivica I. (2005): «Preventing childhood obesity: Health in the balance: Executive summary», *Journal of the American Dietetic Association*, 105(1), 131-138. <https://doi.org/10.1016/j.jada.2004.11.023>
- Koyanagi, Ai; Veronese, Nicola; Vancampfort, Davy; Stickley, Andrew; Jackson, Sarah E.; Oh, Hans; Shin, Jae Il; Haro, Joseph M.; Stubbs, Brendon eta Smith, Lee (2020): «Association of bullying victimization with overweight and obesity among adolescents from 41 low- and middle-income countries», *Pediatric Obesity*, 15(1), e12571. <https://doi.org/10.1111/ijpo.12571>
- Kumar, Seema eta Kelly, Aaron S. (2017): «Review of childhood obesity: From epidemiology, etiology, and comorbidities to clinical assessment and treatment», *Mayo Clinic Proceedings*, 92(2), 251-265. <https://doi.org/10.1016/j.mayocp.2016.09.017>
- Larrain, Enara eta Garaigordobil, Maite (2020): «El bullying en el País Vasco: prevalencia y diferencias en función del sexo y la orientación sexual», *Clínica y Salud*, 31(3), 147-153. <https://dx.doi.org/10.5093/clysa2020a19>
- Lee, Byung; Jeong, Seokjin eta Roh, Myunghoon (2018): «Association between body mass index and health outcomes among adolescents: the mediating role of traditional and cyber bullying victimization», *BMC Public Health*, 18(1), 674. <https://doi.org/10.1186/s12889-018-5390-0>
- Lee, Jungup; Hong, Jun Sung; Tan, Kevin; Pinos-Leano, Maria eta Baek, Seung A. (2020): «Bullying victimization profiles of school-aged adolescents and associations with weight statuses: A latent class analysis», *Journal of Interpersonal Violence*, 36(23-24), NP12949-NP12972. <https://doi.org/10.1177/0886260520905087>
- Levandoski, Gustavo eta Cardoso, Fernando L. (2010): «Percepção docente sobre as relações de agressividade, lúdico e bullying na escola», *Pensar a Prática*, 13(2), 1-13.
- , (2013): «Imagem corporal e status social de estudantes brasileiros envolvidos em bullying», *Revista Latinoamericana de Psicología*, 45(1), 135-145.
- Lin, Yi-Ching; Latner, Janet D.; Fung, Xabier C.C. eta Lin, Chung-Ying (2018): «Poor health and experiences of being bullied in adolescents: self-perceived overweight and frustration with appearance matter», *Obesity*, 26(2), 397-404. <https://doi.org/10.1002/oby.22041>
- Liu, Xiaoqun; Chen, Gui; Yan, Junxia eta Luo, Jiayou (2016): «Weight status and bullying behaviors among Chinese school-aged children», *Child Abuse & Neglect*, 52, 11-19. <https://doi.org/10.1016/j.chiabu.2015.12.010>
- Lopes de Sousa, Pedro M. (2008): «Body-image and obesity in adolescence: a comparative study of social-demographic, psychological, and behavioral aspects», *The Spanish Journal of Psychology*, 11(2), 551-563. <https://doi.org/10.1017/s1138741600004558>
- Lumeng, Julie C.; Forrest, Patrick; Appugliese, Danielle P.; Kaciroti, Niko; Corwyn, Robert F. eta Bradley, Robert H. (2010): «Weight status as a predictor of being bullied in third through sixth grades», *Pediatrics*, 125(6), e1301-e1307. <https://doi.org/10.1542/peds.2009-0774>
- Luppino, Floriana S.; de Wit, Leonore M.; Bouvy, Paul F.; Stijnen, Theo; Cuijpers, Pim; Penninx, Brenda WJH eta Zitman, Frans G. (2010): «Overweight, obesity, and depression: A systematic review and meta-analysis of longitudinal studies», *Archives of General Psychiatry*, 67(3), 220-229. <https://doi.org/10.1001/archgenpsychiatry.2010.2>
- Madowitz, Jeniffer; Knatz, Stephanie; Maginot, Tamara; Crow, Scott J. eta Boutelle, Kerri N. (2012): «Teasing, depression and unhealthy weight control behaviour in obese children», *Pediatric Obesity*, 7(6), 446-452. <https://doi.org/10.1111/j.2047-6310.2012.00078.x>

- Mahan, L Kathleen; Escott-Stump, Sylvia eta Raymond, Janice L. (2013): *Krause Dietoterapia* (13. ed.), Elsevier España SL, Bartzelona.
- Méndez, Inmaculada eta Cerezo, Fuensanta. (2010): «Bullying y factores de riesgo para la salud en estudiantes de secundaria», *European Journal of Education and Psychology*, 3(2), 209-218.
- Mendoza, Brenda (2013): *Bullying: Los múltiples rostros del acoso escolar*, Editorial Brujas, Madril
- Merchant, Anwar T.; Dehghan, Mahshid; Behnke-Cook, Deanna eta Anand, Sonia S. (2007): «Diet, physical activity, and adiposity in children in poor and rich neighbourhoods: A cross-sectional comparison», *Nutrition Journal*, 6, 1. <https://doi.org/10.1186/1475-2891-6-1>
- Moher, David; Liberati, Alessandro; Tetzlaff, Jennifer eta Altman, Douglas G. eta the PRISMA Group (2009): «Preferred reporting items for systematic reviews and meta-analyses: the PRISMA statement», *Annals of Internal Medicine*, 151(4), 264-269. <https://doi.org/10.1371/journal.pmed.1000097>
- Morales, Danielle X.; Grineski, Sara E. eta Collins, Timothy W. (2019): «School bullying, body size, and gender: an intersectionality approach to understanding US children's bullying victimization», *British Journal of Sociology of Education*, 40(8), 1.121-1.137. <https://doi.org/10.1080/01425692.2019.1646115>
- Nabors, Laura; Odar, Cathy; Garr, Katlyn eta Merianos, Ashley (2019): «Predictors of victimization among youth who are overweight in a national sample», *Pediatric Obesity*, 14(7), e12516. <https://doi.org/10.1111/ijpo.12516>
- Narvaz, Marta G. eta Koller, Silvia H. (2006): «Famílias e patriarcado: da prescrição normativa à subversão criativa», *Psicologia & Sociedade*, 18(1), 49-55. <https://doi.org/10.1590/S0102-71822006000100007>
- Odar, Cathy; Merianos, Ashley; Nabors, Laura eta Peugh, James (2016): «Prevalence and predictors of bullying behavior among overweight and obese youth in a nationally representative sample», *Childhood Obesity*, 12(4), 263-271. <https://doi.org/10.1089/chi.2015.0172>
- O'Keeffe, Majella; Flint, Stuart W.; Watts, Krista eta Rubino, Francesco. (2020): «Knowledge gaps and weight stigma shape attitudes toward obesity», *The Lancet Diabetes & Endocrinology*, 8(5), 363-365. [https://doi.org/10.1016/S2213-8587\(20\)30073-5](https://doi.org/10.1016/S2213-8587(20)30073-5)
- Oliveira, Vivianne eta Parra, Juan (2014): «Imagen corporal y percepción de la influencia de los medios de comunicación: diferencias de género en una muestra de adolescentes», *Revista Inter Ação*, 39(3), 461-478. <https://doi.org/10.5216/ia.v39i3.27535>
- Olweus, Dan (1994): «Annotation: bullying at school: basic facts and effects of a school based intervention program», *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 35(7), 1.171-1.190. <https://doi.org/10.1111/j.1469-7610.1994.tb01229.x>
- ONG Internacional Bullying sin fronteras (2021): *Bullying sin fronteras*, <https://bullyingsinfronteras.blogspot.com/2018/10/estadisticas-mundiales-de-bullying_29.html> (Konsulta: 2021-10-26).
- Orte, Carmen (2006): «Nuevas perspectivas sobre la violencia y el "bullying" escolar», *Panorama Social*, 3, 27-41.
- Osasunaren Mundu Erakundea. (2020). *Obesity and overweight*, <<https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/obesity-and-overweight>> (Konsulta: 2021-04-02).
- Pereda-Pereda, Eva; Echeburúa, Enrique eta Cruz-Sáez, M. Soledad (2019): «Anti-fat bias and school adjustment among primary school children in Spain», *Anales de Psicología*, 35(1), 75-83. <https://doi.org/10.6018/analesps.35.1.311731>

- Pont, Stephen J.; Puhl, Rebecca; Cook, Stephen R. eta Slusser, Wendelin (2017): «Stigma experienced by children and adolescents with obesity», *Pediatrics*, 140(6), e20173034. <https://doi.org/10.1542/peds.2017-3034>
- Puhl, Rebecca; Latner, Janet D.; O'Brien, Kerry; Luedicke, J., Forhan, Mary eta Danielsdottir, Sigrun (2016): «Cross-national perspectives about weight-based bullying in youth: nature, extent and remedies», *Pediatric Obesity*, 11(4), 241-250. <https://doi.org/10.1111/ijpo.12051>
- Puhl, Rebecca eta Lessard, Leah M. (2020): «Weight stigma in youth: Prevalence, consequences, and considerations for clinical practice», *Current Obesity Reports*, 9(4), 402-411. <https://doi.org/10.1007/s13679-020-00408-8>
- Rupp, Kristie eta McCoy, Stephanie M. (2019): «Bullying perpetration and victimization among adolescents with overweight and obesity in a nationally representative sample», *Childhood Obesity*, 15(5), 323-330. <https://doi.org/10.1089/chi.2018.0233>
- Şahin, Nilfer eta Kırılı, Ulviye (2020): «The relationship between peer bullying and anxiety-depression levels in children with obesity», *Anatolian Journal of Psychiatry*, 22(2), 94-99. <https://doi.org/10.5455/apd.133514>
- Salmivalli, Christina (1999): «Participant role approach to school bullying: implications for interventions», *Journal of Adolescence*, 22(4), 453-459. <https://doi.org/10.1006/jado.1999.0239>
- Salmivalli, Christina (2010): «Bullying and the peer group: A review», *Aggression and Violent Behavior*, 15(2), 112-120. <https://doi.org/10.1016/j.avb.2009.08.007>
- Sharp, Sonia; Thompson, David eta Arora, Tiny (2000): «How long before it hurts?», *School Psychology International*, 21(1), 37-46. <https://doi.org/10.1177/0143034300211003>
- Simoni, Paolo; Guglielmi, Riccardo eta Gómez, M. Pilar A. (2020): «Imaging of body composition in children», *Quantitative Imaging in Medicine and Surgery*, 10(8), 1.661-1.671. <https://doi.org/10.21037/qims.2020.04.06>
- Sokol, Rebecca L.; Qin, Bo eta Poti, Jennifer M. (2017): «Parenting styles and body mass index: a systematic review of prospective studies among children», *Obesity Reviews*, 18(3), 281-292. <https://doi.org/10.1111/obr.12497>
- Sutin, Angelina R.; Robinson, Eric; Daly, Michael eta Terracciano, Antonio (2018): «Perceived body discrimination and intentional self-harm and suicidal behavior in adolescence», *Childhood Obesity*, 14(8), 528-536. <https://doi.org/10.1089/chi.2018.0096>
- Tornero-Quiñones, Inmaculada; Sierra-Robles, Ángela; Carmona, José eta Gago, Juan (2015): «Implicaciones didácticas para la mejora de la imagen corporal y las actitudes hacia la obesidad desde la Educación Física», *Retos*, 27, 146-151.
- van Geel, Mitch; Vedder, Paul eta Tanilon, Jenny (2014): «Are overweight and obese youths more often bullied by their peers? A meta-analysis on the relation between weight status and bullying», *International Journal of Obesity*, 38(10), 1.263-1.267. <https://doi.org/10.1038/ijo.2014.117>
- van Vuuren, Cornelia L.; Wachter, Gusta G.; Veenstra, René; Rijnhart, Judith J.M.; van der Wal, Marcel F.; Chinapaw, Mai J.M. eta Busch, Vincent (2019): «Associations between overweight and mental health problems among adolescents, and the mediating role of victimization», *BMC Public Health*, 19(1), 612. <https://doi.org/10.1186/s12889-019-6832-z>
- Voors, William (2005): *Bullying, en el acoso escolar*, Oniro, Bartzelona.
- Waasdorp, Tracy E.; Mehari, Krista eta Bradshaw, Catherine P. (2018): «Obese and overweight youth: risk for experiencing bullying victimization and internalizing symptoms», *American Journal of Orthopsychiatry*, 88(4), 483-491. <https://doi.org/10.1037/ort0000294>

- Wells, George; Shea, Beverley; O'Connell, Dianne; Peterson, Je; Welch, Vivian; Losos, M. eta Tugwell, Peter (2020): «The Newcastle-Ottawa Scale (NOS) for assessing the quality of nonrandomised studies in meta-analyses», <http://www.ohri.ca/programs/clinical_epidemiology/oxford.asp> (Kontsulta: 2021-04-19).
- Wilfley, Denise E.; Best, John R.; Cahill Holland, Jodi eta Van Buren, Dorothy J (2019): *Childhood obesity*, Hogrefe Publishing, Boston.
- Zahedi, Hoda; Kelishadi, Roya; Heshmat, Ramin; Hasani, Shirin; Esmaeil, Mohammad; Ardalan, Gelayol; Arefirad, Tahereh; Mohammadi, Rasool; Asayesh, Hamid eta Qorbani, Mostafa (2019): «Association of adolescents' weight status with life satisfaction: role of self, peers, family and school perception; the CASPIAN-IV Study», *Minerva Pediatrica*, 71(3), 235-241.
<https://doi.org/10.23736/S0026-4946.16.04410-8>

